

Kaixo, lagunok!

Hemen natorkizue kontu berriekin!

Zuen moduko beste laguntxo batzuk ere ezagutzen ditut, gogoratzten dituzue? Beñat eta Irati dira. Eta, ba, zera pentsatu dut: euren familia eta lagunak aurkeztea haiekin jolasteko.

Beñat eta Irati ezagutzen dituzue; baita Agi ere. Oraingoan gurasoak, aitaita-amamak, osaba-izebak eta lagunak aurkeztuko dizkizuet.





Beñat eta Irati

Irati eta Beñat Arrasaten bizí dira. Anai-arrebak dira.

Beñatek zortzí (8) urte ditu eta Iratik zazpí (7).

Batzuetan haserretzen dira, baina, normalean, ondo konpontzen dira elkarrekin.

Patxi



Irati eta Beñaten aita da.

Antzuolakoa da eta hogeita hamabost (35) urte ditu.

Arrasaten lan egiten du, garbigailuak egiten ditu.

*Berritsua eta alai da. Askotan ibiltzen da Iratiarekin
eta Beñatekin jolasean.*

Elena

Irati eta Beñaten ama da.

Bergarakoa da eta hogeita hamabost (35) urte ditu.

Medikua da eta Oñatiko anbulatorioan lan egiten du.

Behar dutenean, beti dago laguntzeko prest. Eskulanak egitea asko gustatzen zaio.





Aitaita-amamak

Iratí eta Beñaten amama eta aitaita dira, eta Patxiren gurasoak.

Antzuolan bizí dira baserri batean.

Aitaita Joxek hirurogeita zazpi urte ditu (67) eta ípuínak eta ístoríoak kontatzea gustatzen zaio.

Amama Mariak hirurogeita lau (64) urte ditu.

Asko gustatzen zaio paseatzea eta perretxíkoak eta sendabelarrak jasotzea.

Baserriko ohiturak eta bizímodua erakusten dizkiete ilobei: animaliak, ortua, lanabesak... zaintzen, lantzen, erabiltzen....

*Amama Garbiñe, osaba Kepa, izeba Amaia,
lehengusua Ander eta lehengusina Ane*

Irati eta Beñaten amama da Garbiñe.

Irati eta Beñaten osaba-izebak Kepa eta Amaia dira.

Lehengusina Ane da. Txinatik ekarri zuten txikia zenean.

Lehengusua Ander da, Aneren anaia.

Bergaran bizirik dira, kiroldegiaren ondoan.

*Irati eta Beñat askotan joaten dira Bergarara bisitan,
ondo konpontzen dira eta ospakizun asko izaten
dituzte.*

Oso alaiak dira.





Lagunak: Leire eta Iker

Leire eta Iker Beñaten eta Iratiren lagunak dira. Denak elkarrekin ibiltzen dira herriko plazan jolasean.

Leirek zazpi (7) urte ditu, eta marimandona samarra da.

Ikerrek, berriz, zortzi (8) urte ditu, eta handia izaten denean etxeak egin nahi ditu.

Guztiak elkartzen direnean, bihurrikeriak egitea gustatzen zaie.



Argi txakurra

Argi txakurra da. Etxean daukate eta denen artean zaintzen dute. Hala ere, gusturen Beñat eta Iratirekin ibiltzen da jolasean.

Oso mugitua da eta ez du zaunkarik egiten.


Ardi-txakurra da, ilea luzea eta zurizka du, ia ez zaizkio begiak ikusten.




2. FAMILIA ETA
INGURUNEA

→ Marrazkiak







2. FAMILIA ETA
INGURUNEA

→ Marrazkiak





2. FAMILIA ETA
INGURUNEA

→ Marrazkiak

